

Ezpalak

JON TORNER

“Kliklap” bideo lehiaketa abiarazi du Kanaldudek



ALDUDARRAK BIDEO, Kanaldude euskarazko herri telebistaren ekoizle den enpresak, *Kliklap* izeneko bideo lehiaketa jarri du abian. Aurkeztutako lanak bi sailetan banatuko dituzte: gai librea

dutenak batetik, eta *Zure euskarazko telebista gaur egun?* galderaren inguruan mintzo direnak bestetik. Euskaraz grabatu behar dira, eta hala egin ezean, euskarazko azpitoluak jarri beharko zaizkie. Irailaren 8a baino lehen helarazi behar dira Aldudarrak Bideo enpresak Arrosako (Nafarroa Beherea) plaza nagusian duen egoitzara. Bideo guztiak Kanalduderen webgunean izango dira ikusgai. Xehetasun gehiago www.aldudarrak-bideo.com webgunean aurkituko duzue.

Gaztezaparrada.info: Ipar Euskal Herriko gazteriaren bozgorailu

GAZTEZAPARRADA.INFO ekimen komunikatibo sortu berriak “euskal gazte ezkertiar eta abertzaleen bozgorailu izan nahi du”, proiektuaren sustatzaile Ekhi Erremundegik adierazi duenez. Gazte Zaparrada irratsaioa pasa den udazkenean sortu zuten Euskal Irratietan, eta orain webgunea abiarazi dute. Erremundegirekin batera, Itxaso Cuevasek eta Inge Arinek daramate irratsaio-webgunearen gidaritzatza.



Euskal Herria Zuzenean (EHZ) jaialdiak aurten izan dituen galerak estaltzeko xedearekin, *EHZk bizi behar du!* kanpaina jarri dute abian, nahi duen orok laguntza eman dezan. Uztailaren 2an hastekoa zen jaialdia, Heletan (Lapurdi), baina lehen eguneko ekitaldiak bertan behera geratu ziren haize erauntsiengatik. Guztira 200.000 euroko galerak jasan zituztela adierazi zuten antolatzaileek. (www.ehz-festibala.com)

Delorean eta La Bien Querida saritu ditu UFIk, Espainiako Estatuko 50 diskoetxe independente biltzen dituen elkarteak. Musika Independentearen Sariak Madrilen banatu zituzten: Zarauzko Delorean taldeak urteko artista onenaren saria jaso zuen, eta Ana Fernandez-Villaverde La Bien Querida musikari bilbotarrak artista errebelazio onenarena eta disko onenarena, *Romancero* lanarekin.

Euskal Herriko Gazte Orkestrak (EGO) *La Chanson de Roland* dokumentalaren soinu banda grabatuko du uda honetan. Orreagako gudari buruzko dokumentala Olivier Van der Zee zuzendaria ari da filmatzen, France 3 eta ETB telebistentzako. Zinema aretoetan ere emango dute.

● **Hasier Oleaga musikaria udako jazz jaialdiez mintzo da *Diario de Noticias de Alava* egunkarian:** «Aste batzuez, badirudi honetan gabiltzanok beste status batera pasatzen garela. Hori ez da erreala, hila-bete honetan amaitzen delako beti. Beti heltzen da martxoa, adibidez. Beti itzultzen da bizi garen errealtatea, eta hura oso urrun dago data hauetan ikus daitekeenetik. Okerragoa litzateke jaialdirik ez egotea, noski».

● **Xarma musika taldeko kideek *Nontzeberri.com* webgunean:** «Duela aspalditik nabaritzen dugu, musika eta musika taldeak krisian egon ez arren, musikaren industria bera krisian dagoela. Egia esan, ez genuen gure musika produktu bat bailtzen diskoetxeetako atea jotzen ibiltzeko gogo gehiegirik. Guk gure buruarengan eta egiten dugun musikarengan konfiantza daukagu. Abestiak genituen, diseinua ere, grabazioko gastuak guregain joan dira... zein zentzu dauka, lan hori guztia egin eta gero diskoetxe baten bila hasteak? Diskoetxeentzat ere ez da erraza izan behar ezezaguna den talde baten aldeko apustua egitea eta hori ulertzekoa da».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php